

Estás en: [diariovasco.com](#) > [Noticias Más Actualidad](#) > [Noticias Cultura](#)

## CULTURA

# Eleberri fantastikoa da 'Larrua hotz', baina norbere buruaz galderak egitera behartzen du

Sanchez Piñolen eleberri arrakastatsuari ere iritsi zaio euskal bertsoaren ordua

08.04.09 - FELIX IBARGUTXI | DONOSTIA.

Vota ☆☆☆☆☆ | 0 votos ☆☆☆☆☆



Opina



Ver comentarios (0)



Imprimir



Enviar



Rectificar

**DV.** Kataluniako literaturak azken urteotan eman duen eleberri arrakastatsuenetako bat euskarara ekarri dute: Albert Sanchez Piñol-en *Larrua hotz*. «Liburu honek behartzen zaitu zeure buruari buruz galdera batzuk egitera», esan zuen atzoko aurkezpenean Lander Garro itzultzaileak

Lander eta Zigor Garro anaiek egin dute itzultze lana. Zigor, berriz, preso dago espetxe batean, ETAko goi-mailako kide izateaz akusatua, eta anaiak haren idatzi bat irakurri zuen, besteak beste hau zioena: «Ez da nobela politikoa (eta horregatik da nobela politikoak baino politikoago, agian). Baina eleberri politiko bat izan gabe, halako asmorik gabe, borroka politikoetan funtsezko diren hainbat giltzarri ematen ditu».

«Nolanahi ere, fantasiako liburua da eta horrela irakurri behar da», zehaztu zuen Landerrek. Stevenson, Lovecraft edo Conrad-en obrekin konparatua izan den obra honen abiapuntua zera da: Irlandako errepublika gaztea guda zibilak inarrosi du independentzia eskuratu berritan, eta protagonistak, irlandar matxino ohiak, itsasbideetatik baztertuta dagoen irla galdu batera joko du, hango egurats-teknikaria izateko asmoz. Lur eremu txiki hartan, espero ez duen izaki-mota batekin egingo du topo, azal hotza daukana.

Lander Garroren iritziz, hau izan liteke istorioaren laburpena: «Zenbateraino itsutu gaitezkeen gure etsaiarekin setio egoera batean».

Bestalde, eleberriaren eskubideak lortzeko izan zituen gorabeheraz jardun zen atzokoan Mikel Soto editorea. Esan zuen kasu honetan Sanchez Piñolen agente literarioa oztopo besterik ez dela izan. Sotok gaineratu zuen «ahoz ahoko» arrakasta lortu duela nobela honek, eta 2005eko Frankfurtoko Azokan zabalkunde handia lortu zuela. «2002an eman zen argitara katalanez eta jadanik 25 hizkuntzatarara dago itzulita», esan zuen.



Albert Sanchez Piñol. /EFE

## 'LARRUA HOTZ'

### Jatorrizko izenburua:

*La pell freda.*

**Egilea:** Albert Sanchez Piñol (Bartzelona, 1965).

**Argitaletxea:** Txalaparta.

**Orrialdeak:** 280.

**Salneurria:** 18 euro.